

# Fausto Elhuyar

Iñaki Azkune

**F**austo Fermin Elhuyar Zubize Logroñon jaio zen 1755.eko urriaren 11n. Joan Elhuyar aita, zirujau famatua zen; Hazparden jaioa eta besteak beste begiko kataratak operatzen trebea. Leku askotatik etortzen zitzaion jendea sendatzera. Donibane-Lohizuneko Ursula ama txikia zela hil zitzaion eta anaia zaharrragoa Joan Jose nahiz arreba gazteagoa Maria Lorentza zaintzearren, aita berriz ezkondu zen.

1772. urtean, aitzak Fausto bere anaiarekin Parisera bidali zuen ikasketak egin zitzaiz. Anaiak bezalaxe batez ere kimika eta mineralogia landu zituen. 1778. urtean, anaia Joan Jose baino urtebete geroago, *Bergarako Erret Mintegiko* laborategian hasi zen lanean, baina laster joan ziren berriz ere bi anaiak Europar barrena (Paris, Strasbourg, Mannheim, Freiburg, Leipzig eta abar) metalurgiari buruzko azken teknikak ikastera.

1781. urtean Austrian eta Hungariar ibili ondoren, urrian Bergarara itzuli zen, bitartean Joan Jose anaia Suediara abiatu zelarik. Bergaran Faustok bere dotazioaren herena Darcet-ek esplikaturako teknikak Saxoniatik ekarritako mineral bati aplikatzen zizkion; Bohemia eta Saxoniaren mugako Zinnwald-eko eztainu-meatzetatik ekarritakoari, hain zuzen. 1782. urteaz gero anaia Joan Joserekin batera egin zituen bere saiakuntzak.

Minerala deskonposatu eta burdina eta manganesoa atera zituzten. Geratzen zen hondakina azido nitrikoz tratatuta, hauspeakin zuria lortu zuten. Gero azido klorhidrikoaz konbinatuz, hauspeakin horia lortzen zen ( $WO_3$  edo wolframio VI oxidoa, hain zuzen). Berau



**Bergaran, anaiarekin batera wolframioa aurkitu zuen. Mexikon "Real Seminario de Minas" sortu zuen. Meatzetako Zuzendari Orokor eta Meatzarritza-Eskolako zuzendari izan zen.**

erreduzitzeko, xehetu eta ikatz-hautsarekin nahastuta ordu t'erdiz su indartsuan eduki zuten. Botoi grisaren moduko bat atera zen. Behazetan hauts bihurtzen zitzaiz, alerik handiena orratz-buruaren tamainakoa zelarik. Wolframio izeneko elementu kimikoa zen; munduan lehen aldiz Bergaran isolatua.

Aurkikuntza nagusi haren berri idatzita lehen aldiz Xabier Maria Munibe eta Azkoitiko Zalduntxoek sortutako Herri-Lagunen Erret Elkartearen Gasteizko Batzarre Nagusian, 1783. ean, eman zen. Hurrengo urtean eta seguru asko

Faustok idatzita, Toulouse-ko Zientzi Akademiak argitaratu zuen aurkikuntza-prozesuaren txostena. 1785. urtean Ingalaterran argitaratu zen, 1786. ean Alemanian eta ondoren Suedian.

Fausto Elhuyar, bere anaia Joan Joserekin, gero urre, platino, zilar, kobre, burdinurto eta abarrek nahastuta wolframioaren aleazioak lortzen saiatu zen.

Fausto Bergararik Alemaniara eta Hungariara joan zen, Born-eko baroiak zilar-mineralak merkurioz tratatzeko asmatutako teknikak ikastearren. Ameriketara teknikariak eramateko lanetan ere ibili zen. Vianan 1787.eko urriaren 16an Joana Raab-ekin ezkondu eta urte hartantxe frantsesez *Dissertations métallurgiques* izeneko idazlana idatzi zuen, baina zoritxarrez ez da guganaino heldu.

Espainiara itzulita 1788. urterarte meatzetarako injineru eta teknikariak (alemanak asko) prestatzen aritu zen. Mexikora eraman zituen berarekin batera hango us-tiapenak hobetu eta berritzearen.

Mexikon 1792. urtean "Real Seminario de Minas" izeneko sortu zuen; hango lehen injineru-eskola, alegia. 1821. urtean Agustin Iturbide (Mexikoko enperadore izango zena) Ameriketara heldu zenean, Faustok bere kargutik dimititu eta Espainiara itzuli zen. Espainiako Meatzaritzarako Zuzendaritza Nagusia antolatu zuen eta Espainiako mapa geologikoa prestatzeari ekin zion. Asturiasko meatzak ere aztertut zituen.

Meatzetako Zuzendari Orokor eta Meatzarritza-Eskolako zuzendari zela, Madrilen hil zen 1833.eko urtarrilaren 6an, bere Luisa alaba bakarra Habana-n zuela.